

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**OGASUN ZUZENDARITZA**

Udal Zerga eta Katastro Zerbitzua

Interesdunei jakinarazi ezin izan zaizkien jakinarazpenak

Administrazioari ez dagozkion arrazoiengatik ondokoei ezin izan zaie jakinarazi honako informazioa; beraz, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 108. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aipatutako artikuluko horrek eskatzen dituen jakinarazteko ahaleginak egin ondoren, iragarki honen bidez ondoren zerrendatzen diren zergapekoei edo haien ordezkariak jakinarazten zaie dei egiten zaiela ondoren zerrendatzen diren prozedurei dagozkien administrazio egintzetara:

Interesdunek edo haien ordezkariak gehienez 15 egun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera agertzeko. Hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzako Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuaren Bulego Kudeatzailean (Samaniego kalea, 14. Gasteiz) aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera 08:15etik eta 14:30era bitartean, zerga hori kudeatzen duen bulegoak izapidetutako prozeduren berri eman diezaien.

Agertzeko epea igaro, eta interesduna edo haren ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu ondorengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2018ko martxoaren 9a

Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuaren burua
ANTONIO ESPINOSA LÓPEZ

IFZ	IZENA/SOZIJETATEAREN IZENA	JAKINARAZPEN ZENBAKIA
B-71029698	TODOCARTUCHO SL	AC-53641000005
B-01117803	TRANSPORTES APIÑANIZ SL	AC-52698000001
X-04751533	CATALIN BUMBU, ANDREI	AC-52733000001